

Hansburgo'ko Otto'ren gañean eztabaida

(*Insbruck'tik gure korresponsal dan F. GALLENBRUNNER'ek*)

1945'gna. ezkerroztik ez da beste gertakizunik izan estaduaren legezko batasuna zalantzaz jarri duanik, Austria'ko azken emperadorearen semearen etorrera dala ta sortu dan burrukak bezela.

Eztabaida onen sustraiak 1919'gn. urtean daukate iturria, izan ere europאר gerrateka bukatu zanean Hansburgo izeneko kegean au irakurri ditekete:

«Errepublikaren ontasunagatik eta seguridadeagatik Estaduti bidalita gelditzen dira azkeneko emperadorea eta Hansburgo-Lorena etxeko gañentzakoak, auek ordea, etxe ortakoak dirala eta orregatik errege izateko eduki lezazteken usteak, eta errepublikaren obeitzaile zintzo izateko zii egiten etzuten bitartean.

Etxe ortako askoak 1919'gn. urtean eskatzen zana bete zuten

eta errepublikak etzeukan zer esanik beren etorraren kontra, baiñan etxearen buru zan Hansburgo'ko Otti'k kanpoan jarraitu zuan. Ala ere bere burua austriar bezela dauka eta orregatik Austria'ko nora-agiria, legezko pasaporte dauka, baiñan nora-agiri orrek oar au dakarki: «mundu guztiko estaduentsat baliozkoa, Austria ez beste gañentzakoentzatz».

1961'go maiatzaren 31'an bakarriz izenpetu zuan azkeneko emperadorearen semeak eskatzen zitzaion ukaketa, aberriara joateko gogo biziagatik, au esanez, «Nik, izenpetzen detanak, ziiñ dagit agiri agirian Hansburgo-Lorena etxeko izateari uzten diot eta ortik datorkitan eskubide guztiei, ta errepublikari zintzoa izateko itza ematen det. Hansburgo-Lorena'ko Otto'k».

Erabaki onek etzuan arkitu Austria'n arrera zearo berdiña.

Errikoi partiduak (kristau demokraziak) naikoa zala esan zuan, sozialistak ordea azkeneko emperadorearen semearen etorrera etzala «egokia» esan zuten. Sozialisten ueste ontatik sortu zan eztabaida, oraindikan bukaera arkitzen etzaion eztabaida.

Orduan Hansburgo'ko Otto'k Konstituzio-zai dan Tribunalarengana jo zuan, nai dan lekuan bizi izateko eskubidea ta berdintasunaren eskubidea menperatuak izan ziralako. Baiñan Tribunal orrek etzala nor ori erabakitzeko erantzun zuan 1961'go abenduaren 16'an. Eta gobernuak bere ukatzearen seinalerik eman etzion Otto'k Administrazio Tribunalarengana jo zuan eta onek baietzkoa eman zion Hansburgo'ko Otto'ri. Egin zuan ukatzea naikoa zala kanpoan bizitzeari bukaera emateko erabaki zuan ta 1963'go

maiatzaren 31'an jakin erazi zitzaion au Otti'ri.

Baiñan sozialisten errege-kontra ta aristokraziaren-kontrako sentimendu ta naik bere kidekoak ez ezik, gai onetaz, geroago ikusi zan bezela baita ere Liberal Partidukoak eta Errikoi partiduko batzuek ere bereganatu zituan. «Otto'ren etorrera etzan egokia», au izan zan sozialisten slogan audiena. Errikoi partidua bere barruan zatituta ta neke audienetan erori zan. Partiduaren lendakaritazan aldaketa bat izan zan. Lengo Gorbach kanzillerrak joan egin bear izandu zuan eta gobernu berria asarre audienetan tartean sortu zan eta Hansburgo'ko Otto'k ofizialki oraingoz bere eskubidea etzuala erabiliko, ez dala oraindik Austria'ra joango aitortu ondoren. Ala ere berandu 1966'gn. urtean bukatu nai du bere kanpoan bizitzea ta aberriara bueltatzea.

Munduan esaten dana

LA DISCUSSIONE

Italia'ko liberazioaren urte betetzean

Liberazioaren urtebetzeak ez du izan bear nazi-fasizismoaren bukaera bezela edo guda bat irabaztea bezela bakarrik. Jorrrailaren 25 da Italia'rentzat bizimodu berri baten asiera, egun ontan gizonak, errikoak bere eginkizunetan jabe izatera iritzi ziralako ta nazioaren gora bertan protagonistak.

LE MONDE

Johnson'en zoritxarra

Amerika'ko gizartearen defenditzalle beroa Johnson lendakariak ez du batere antzik guda otzeko kruzadoarenik. Bere lema, bizi ta bizitzera izan ditekete. Zoritxarrez bertarrentzat ordea Errusi'arekin zegoan leguntasuna ez dago zearo sendotuta, oraindikan munduan badiralako bi leku bere gobernu estu estuan jartzen dute-nak: Cuba ta Vietnam, okerre-na bigarreña danik.

NAZIO-ARTEKO UNEA

VIET-NAM'GO NEGARRA

FRANTZIA'ren menpean egon zan Indotxina'tik iru edo lau nazio berri sortu ziran: Cambodya, Laos eta Viet-nam, azkeneko au bi zatitan, ipar aldekoa komunisten menpean gelditu zana ta bestea okzidentezalehen menpean gelditutakoa. Nazio auek danak, gutxi gora bera, Txina'ren egalekoak, Txina'ri begiratuaz egon bear dutenak dira. Cambodya'n erregea bera egin zan erreboluzio-zale ta estaduaren neutralidadea garantizatu naiten dabill, naiz eta au Ipar-amerikite'ren gogokoa ez izan. Laos'eri eman zioten orain dala bi urte neutralidadearen garantia ta batasuneko gobernu bat osatu zuten eskubikoak, neutralak eta komunistak, baiñan egun aietan eskubizaleak armetan altxa diralako komunistak indar gelago izan ta gaizki dago gauza neutralidadea eusteko.

Viet-nam'en berriz, ego-aldeko Viet-nam'eh jakifña, naiz eta okzidentezalehen eskuetan gelditu, badira, eta asko gafiñera, estadu ortan bertan armetan dauden komunista-zaleak, Viet-Cong izeneko ejerzitua osatzen dutenak. Auek gero ta gero indar audiagoa daukate, gobernuo gudariak ere askotan aueri kontra egin bearrean auetara pasatzen dira ta.

Ipar-ameriketak berriz alegiiñ guztiak egiten ditu dirua, armak eta militarrek emanaz, Vietnam'go gobernuari eusteko baiñan alperrik. Ipar-ameriketarrentzat gauza gero ta gero okerrago dijoa. Ipar-ameriketarrak itzegiten asi baiño lenago etsaik armekin menperatu nai dituzte, baiñan ezin dute ori lortu.

Estadu oiek, danak Frantzia'ren menpean luzaroan egonak, Ginebra'ko tratatuaren bidez lortu zuten askatasuna, eta ordu ezkerroztik bada batzorde antzeko zerbait nazio oien askatasunari eusteko. Batzorde oien lendakariak dira Ingalterra ta U.R.S.S. Batzordeko kiderik audienak Ipar-ameriketa, Txina ta Frantzia dira.

Frantzia'ren iritzia da alderdi aietan pakea jartzeko bearrezkoa dala Ginebra'ko batzorde au berriro biltzea, nazio alien neutralidadea seguru garantizatzeke. Etzai ordea, oraingoz, ori Ipar-ameriketa'ri oso gogozko, izena ta indarra galtzeadalako berarentzat, ta elektzio batzuen aurren (azaroan dituzte lendakaritzarako elektzioak) ezii ditekene dalako lendakariarentzat.

Batzuek ezin dute politika ikusi, eta batzuetan ez dala arritzekoa esan bear. Gai ontan ikusten dana, ara, or dabilta gizonak alkar litzen eta gauzak konpondu ditzekeanean, azaroa arte ezer egin gabe Ipar-ameriketak izenik galdu ez dezan eta lendakariak elektzioak berriro irabazi al izan ditzan.

ARREGI'tar RIKARDO'k

Ale baka-rra 2:50 pezta

OIAL BIKAIN BERRI ERAKUSTEGIA

ALDAMAR

ZUZENBIDEA: ALDAMAR, 2
(Reina Regente ertzean)

Urrutizkiña 1-54-65
DONOSTIA

Oyal s. a.

Oyal eta sforru almazena
Paregabeko ta bikaliñenak

Telefonua 14304
Garibay, 4 DONOSTIA

ERLOJUTEGI, BITXITEGI,
ZILLARTEGI

LA JOYITA

ALDAMAR, 12 - DONOSTIA
(Brecha ondoan)

"FUNCOR" S. C. I.

Benetako baserritarrak bear dituzten MAKINAK:

BIRRINTZALLE - ERROTA - NAASTALE
ZERRA - URAGA - URASKA

Europa'ko aurrerakizuni'k onenak, emengo nekazarientsat.

Adi ta oroi ezazu.

"FUNCOR"

AZKAR BEZIN ONDO
ELORRIO Vizcaya 114